



2024KO MAIATZAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita hamarrean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

Alkateak dio gai-zerrendarekin hasi aurretik, EH Bilduk aurkeztutako Palestinari buruzko mozioaren inguruan, epez kanpo aurkeztu dutenez, bozkatu beharko dutela jorratu edo ez erabakitzeko.

Jarraian esan du gai-zerrendatik kanpo zerbait tratatu ahal izateko izan behar duela zerbait, Udal honek hartu beharreko erabakia atzeraezina edota erabaki horrek gaurko Osoko Bilkuran hartu edo hurrengo batean hartu, eragin zuzena izan behar duela udalerrian edo herritarrengan. Ez gaia bera garrantzizkoa edo mamitsua izatea, baizik eta Osoko Bilkurak hartu beharreko erabakiak, orain hartu edo beranduago hartzeak eragin zuzena duen edo ez. Hori dela irizpidea. Mozioaren gaia benetan garrantzitsua dela beraintzat, larria eta penagarria. Baina euren ustetan gai hau aurretik jakina zela, egoera larria zela. Ez dutela ulertzen zergatik, jakinda gai-zerrenda astelehenetan bidaltzen dela, aurkeztu duten mozioa asteartean. Deialdia egiten denean, honekin batera doan gai-zerrendak garrantzia duela, dagokion garrantzia eta tokia izan behar duela beren ustetan. Ez dutela gai hau sahiestu nahi, gai hau garrantzitsua eta larria dela deritzotela. Alkateak bi partiduen artean testu bateratu bat adostea proposatu du eta modu bateratuan aurkeztea.

Hau esan ondoren, aldeko 6 botorekin (EH Bildu) eta kontrako 7 botorekin (EAJ-PNV), EH Bilduk aurkeztutako Palestinari buruzko mozioa gai-zerrendan sartzeari uko egitea erabaki du Osoko Bilkurak.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du lehen Alkateak esan duenari dagokionean, hartu beharreko erabakiak atzeraezina izan behar duela erabat subjektiboa dela. Legeak, nahi duenari mozio bat aurkezteko eskubidea ematen diola, ekar dezaketela eta hori izango dela norbere erabakia emateko garaian baiezkoa edo ezezkoa erabiltzeko irizpidea.



I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2024ko apirilaren 25an egindako ohiko bilkurako akta, eta 2024ko maiatzaren 14an egindako bi ezohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- LAZKAOMENDIKO OINEZKOENTZAKO PASEALEKUAREN PROIEKTUA ONARTZEA, ONDOREN GAUZATZEKO BEHAR DIREN LURZORUAK LORTZEKO SOILIK.-

Udal honen enkarguz, Cristina Burgos Villanueva arkitektoak "Lazkaomendi aldeko oinezkoentzako pasealekuaren proiektua" idatzi du. Proiektuaren helburua da oinezkoentzako espaloi bat prestatzea, hilerriaren kanpoaldea Lazkaomendiko Lartxai eraikinarekin lotzeko, 1.740,00 metro linealeko pasealeku bat sortuz.

Memorian jasotako informazioaren arabera, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren titulartasun pribatuko lursailen 5.725,19 m² ingururi eragiten die.

Adierazitako hurrenkeran, eta etorkizunean egikaritzeko jabetza pribatuko lurzoruk erabili ahal izateko beharrezkoak diren izapideak hasteko, honako hau proposatzen zaio Udalbatzari:

Lehenengoa.- Aipatutako proiektua onartzea, gauzatzeko behar diren lurzoruk lortzeko soilik.

Bigarrena.- Jabeekin kudeaketak hastea.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ez dutela ez onartzeko arrazoirik. Bakar-bakarrak Alkateak esan duela proiektua aipatu dela Hirigintza batzordean, baina gutxi parte hartzen dutela gobernu-taldeak lantzen dituen proiektuetan, nahiz eta badakiten hau teknikoki garatua izan dela baina badaudela politikoki hartu beharreko erabaki batzuk ere. Eta eskatzen dutela horrelako proiektuak gehiago kontsultatzea, edota gehiago parte hartzeko aukera ematea proiektu hori osatzen.

Bestalde, hasieratik eskatu zutela horietan estolderia, ura, elektrizitatea, komunikazioak... sartzeko aukera aztertzeke eta gaur aurkezten den proiektuan ez datorrela horrelakorik. Espero dutela behin-betiko proiektuan egotea, hau hasierako proiektu bat dela ulertzen dutela eta gerora landuko direla horiek guztiak. Garrantzitsua iruditzen zaiela Lazkaomendiko baserriek dituzten arazoak estolderiarekin eta urarekin konpontzeko behin-betiko irtenbide bat ematea.





Alkateak erantzun dio gai hau batzorde bat baino gehiagotan jorratu dela eta harritzen dituela horrelako gai garrantzitsu bat jorratzen denean zalantza horiek lehenago ez galdetzea. Parte hartzeko aukera izan dutela nahi duten guztietan. Beste gauza bat dela gaiei heldu behar zaienean, heldu egin behar zaiela eta horrek lanketa eskatzen duela. Errazagoa dela Osoko Bilkurara etorri eta esatea beraiekin ez dela kontsultatu.

Honen inguruan eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak, proposatutako akordioak aho batez onartu ditu.

IV.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA.-

Osoko Bilkurak, 2023ko uztailaren 20an egindako batzarrean, Lazkaoko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiten hasteko erabakia hartu zuen. Hurrengo batzarrean, 2023ko irailaren 28koan hain zuzen ere, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzua, prozedura ireki bitartez eta lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administratiboen plegua eta kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Hau honela, lizitazio deialdiaren iragarkia 2023ko azaroaren 23an argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

2023ko abenduaren 18an, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak kontratazio-erloto errekurtsio berezia jarri zuen Kontratuen Inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoaren aurrean, kontratu honen pleguen aurka.

Organu honek 2024ko maiatzaren 20ko ebazpenaren bidez, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak jarritako errekurtsio berezia baiestea erabaki zuen eta honenbestez, lizitazioa kantzelatzea.

Hau guztia ikusirik, Osoko Bilkura honek, aho batez, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzuaren lizitazioa bertan behera uztea erabaki du.

V.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN LAUGARREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.

Kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren zuzendaritzak kontratua aldatzeko beharra adierazi dio kontratazio organoari.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen esleipena 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen eta lan hauek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitu zitzaizkion lau milioi hogeita hamabost mila berrehun eta hirurogeita hamahiru euro eta hirurogeita hiru zentimo (4.035.273,63



€) gehi BEZari dagokion zortziehun eta berrogeita zazpi mila laurehun eta zazpi euro eta berroegita sei zentimo (847.407,46 €)ko prezioan.

Kontratua 2022ko maiatzaren 3an formalizatu zen, eta zuinketa egiaztatzeko akta 2022ko ekainaren 6an egin zen, kontratista ados zegoela.

2022ko apirilaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordean obra-zuzendaritza zerbitzua Jovino Martinez Sierrari esleitu zitzaion.

2022ko urriaren 13an, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako lehen proiektu bat idaztea onartu zuen, metalezko pasabide bat egin behar zelako, aurrefabrikatutako egitura aldatu zelako eta euste-lanak eta lur-mugimenduak aldatu zirelako. 2022ko urriaren 27an egin zen bilkuran berriz, kontratu hau aldatzeko espedientea onetsi zuen.

2023ko maiatzaren 4an berriz, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako bigarren proiektu bat idaztea onartu zuen, hormak drainatu eta iragazkaiztu behar zirelako, lurzatian zegoen saneamendua desbideratu behar zelako, megafonia-instalazioaren zentralizazioa eta araudi berrira egokitzeko eta pasabidearen egitura metalikoaren suaren aurkako tratamendua egin behar zelako. 2023ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, kontratua aldatzeko bigarren espedientea onetsi zuen.

2024ko urtarrilaren 25ean ere, Osoko Bilkurak, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren hirugarren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu zuen, hainbat arazoiek obra egikaritzeko epea luzatzea eragin baitzuten. Honenbestez, obraren amaiera eguna atzeratzea ekarri zuen honek. 2024ko otsailaren 29an egindako bilkuran, kontratua aldatzeko hirugarren espedientea onetsi zuen.

Obra zuzendaritza daraman Jovino Martinez Sierrak 2024ko maiatzaren 20an txosten bat egin du, eta bertan adierazten duenez, igerileku-ontziaren egituraren egoerari dagokionez, egitura (zutabeak eta beheko lauza) pixkanaka narriatu egin da denboran, eta, beraz, ez da egokia egingo den obraren proiektuko jarduketan kargei aurre egiteko.

Bestalde, txostenak dioenez, egungo igerilekuko beheko solairuko fatxadan kononbor formako hainbat pilare, hormak eta hormigoi armatuzko habeak ditu agerian geratu da, egoera txarrean dagoen zementu-morterozko estalduraren zarpiatua pikatzean, hormako altzairuzko armadura eta zutabe oxidatu ugari daudela, ia gainestaldurarik gabek, eta hormigoiaren iraupenari eragiten diotenak. Horman zeuden armaduren estaldura eskasaren ondorio da hori, proiektua egiteko unean hau agerian ez zegoelarik.

Honez gain, egungo kiroldegia lehen solairuko igerileku berriko harmailetara sartzeko pasabidearekin lotzeko korridorean, obrak egin bitartean egiaztatu da muskulazio-areto espazioaren egungo erabilerak inpaktu nabarmenak eragiten dituela pisuak erortzearen ondorioz, eta horrek eragina duela areto horretako lurzoruan. Horren ondorioz, lehen solairuaren egitura metalezko zertxek eta metalezko egituradun forjatuek eta laguntzeko xaflak osatzen dutenez, bibrazio nabarmenak transmititzen dira egiturara eta etorkizuneko trenkadagintzara.





Azkenik, txostenak dio egungo igerilekuek kloro eta produktu kimiko bidezko arazketa-sistema dutela. Iparragirre Eraikuntzak sozietateak planteatutako sistema aztertu ondoren, zuzendaritza fakultatiboak eta udal-teknikariek positiboki baloratu dutela egingdako proposamena. Hori dela eta, proposatzen dela ura arazteko sistema aldatzea sodio hipoklorittoa fabrikatzeko sistema batera, kontzentrazio baxuko gatzetik abiatuta.

Obra zuzendaritzak egindako txostenean, aurretik azaldutako guztia ikusirik, beharrezkoak diren jarduketa berriak proposatu ditu. Batetik, obran zehar hauteman diren eta Proiektu Teknikoa egiteko unean kontuan hartu ezin ziren ezusteko kausa teknikoak, eta bestetik proposaturiko azken aldaketa funtsezkoa ez izatea oinarritzat hartu ditu, eta beharrezkotzat jo du behar diren aldaketak jasoko dituen proiektu bat egitea, proiektua bera modu egoki batean egikaritu dadin.

Aldatutako proiektuaren kontrata bidezko aurrekontua, guztira (BEZik gabe), 473.437,29 eurokoa da.

Aldaketa horien proposamenean egin beharreko jarduketek, obra gauzatzeko epea 6 hilabetetan luzatuko dute. Horrek amaiera-data, 2024ko urriaren 21ean aurreikusita zegoena, 2025ko apirilaren 21era arte atzeratuko luke.

Beraz, obra-epea luzatuta, obra 2025ko apirilaren 21ean amaitzea aurreikusten da.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, obra-kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra, bi arrazoiek eragiten dute beraz:

1) Kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek, eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:

- a. Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldaketaren beharra.
- b. Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.
- c. Kontratua aldatzeak kontratuaren zenbatekoa aldatzen badu ere, lehen kontratu aldaketaren eta bigarren, hirugarren eta laugarren kontratu aldaketen baturak ez du hasierako prezioaren ehuneko 50 gainditzen, BEZik gabe.

2) Aldaketak funtsezkoak ez izateak. Obra zuzendaritzak bere txostenean adierazten duenez, urak tratatzeko sistemak aldatzeak ez du funtsezko aldaketa bat suposatzen.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak 205. Artikuluan xedatzen duenez, aldaketa bat funtsezkotzat jotzeko honako hauek bete behar dira:

- 1- Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.
- 2- Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.



3- Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Horregatik guztiagatik, baimena eskatzen da Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren aldatutako laugarren proiektua idazteko eta izapidetzeko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du beren ustetan HAPOa egin ondoren egin beharko litzatekeela obra hau, eta plangintza arazoa nabarmentzen dela. Alkateak erantzun dio ez dela plangintza arazoa, arazo teknikoak baizik.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza Etxebizitza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), kontrako botorik gabe eta 6 abstentziorekin, Alkatearen kalitatezko botoa baliatuz, honako akordio hauek hartu ditu:

- 1) Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren laugarren aldaketa espedienteari hasiera ematea.
- 2) Obra zuzendaritzari aldatutako proiektu berria idatz dezan eskatzea.

VI.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) aretora bueltatu da.

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientlea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Halaber, Ogasuneko Informazio Batzordeak egindako txostena eta onarpen-proposamena irakurri da.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du bi arrazoiengatik abstenituko direla: batetik, zati handiena kiroldegiari dagokiolako eta koherentziaz, kiroldegiko proiektuarekin abstenitzen ari direnez, ba honetan ere bai. Bigarren arrazoia azken orduko aldaketa hau, kanpoko igerilekuko etxolaren ustiapenari dagokiona, legezkoa izango dela kontratu txikia den heinean, baina estandarretiko gorenetan dabilen erakunde batentzat oso eredugarria ez deritzotela 9.900 €-ko esleipen bat zuzenean pertsona edo enpresa bati esleitzea.

Alkateak erantzun dio beraiek erabaki dutela garrantzizkoa dela kanpoko igerilekua irekierarako prest egotea, eta deialdi publiko bat egin eta hutsik gelditu ondoren hartutako erabaki bat dela. Kontestu horretan eta ingurugiro horretan hartutako erabakia dela, eta guztiz legezkoa eta bidezkoa delako ustetan daudela.





Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	10.400,00
IV	Transferentzia arruntak	2.010,50
V	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	80.000,00
VI	Inbertsio errealak	599.850,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		692.260,50 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	692.260,50 €
GUZTIRA		692.260,50 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VII.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 2 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPE-DIENTEA.-

Ondoren Alkateak, aurreko ekitaldiko Aurrekontutik datozen kreditu-gerakinak Udalaren 2024ko Aurrekontuari txertatu izanaren ondoriozko 2 zenbakidun kreditu-aldaketarako espedientea onesteko emandako Alkatetzaren Ebazpenaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

VIII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-



Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA